

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1997ko urtarrilaren 24a

*



Txistulari anitz eman ditu Berako herriak urteetan zehar.

Berako Txistu Eguna igandean

■ Igande honetan, hilaren 26an, Txistu Eguna ospatuko dute Beran Euskal Herriko Txistulari Elkarteak eta herriko txistulariek antolatuta. Txistulari zahar eta gazteen bilgune izanen da herria egun guztian zehar. Omenaldirik ere ez da faltako, Antonio Goia txistulari beratarrak ederki merezitakoa jasoko baitu. Goiari esker, hain

zuzen, Berako dantza eta doinu zahar ugari ailegatu zaigu osoki. Berak eta beste hainbat txistularik hasitako lana, gainera, ez da ezerezean gelditu; alderantziz, jarraipen ederra izan du. Horri esker, txistu eskola eta txistulari talde handi eta ona du Berako herriak. Guztiak izanen dira Berako Txistu Eguneko protagonista. ■

Metropoli forala

FELIPE RIUS



Ruandan hil dituzten kooperanteetako batek Walt Whitmanen poesia liburu bat eramaten omen zuen toki guztietara. Emakume hark bertsoen boterean sinesten zuen, dudarik gabe, bazekien egoerarik zailenean ere olerki baten edertasunak salba gaitzakeela, nahiz eta, tamalez, gorputz baten kontra botatako balak ezin geldiarazi. Hamaika heriotza ikusi ondoren, ehundaka zauri sendatu ondoren, erizaina bazter batean eseriko zen iluntzean eta atseginez irakurriko zituen berriro, ozenki agian, natura eta gizakiari buruzko gogoetak, seguru aski buruz ezagutuko zituen poema asko eta beharbada behin baino gehiagotan saiatuko zen hutu nahiz tutsi bati zati txiki-riren bat itzultzen. Hainbestetan irakurrita, liburu guztiz zahartuta egönen

Liburu bat patrikan

zen, gure patrikan eta gogoan luzez eramaten ditugun orrialde guztiak bezalaxe. Hala ere, horietatik izaten dira gehien maite ditugun objektuak, txunditurik utzi gintuen poema liburu hura, penak ahantzazten dizkigun biniloizko disko zaharra edo aspaldian urrututako galtza bakeroak. Inoiz ez zaigu bururatuko liburuaren edizio berria erostea, diskoa CD formatoan eskuratzea edo bakeroak konpontzea, traizio txiki bat izanen litzateke, eta erizainarentzat ere liburu Whitmanen poesia batzuk baino askoz gehiago izanen zen, talisman baten moduko zerbait, baina horrelako talismanek ez dute babes handirik ematen basakeriaren aurrean, eta eskuetan kalashnikov bat daramaten gehienek ez dakite deus poesiaren indarraz. Nazioarteko

bileretan agintariak oreka geopolitikoaz hitz egiten zuten bitartean, estatuek eta merkatariek armen negozioren etekinak aztertzen zituzten bitartean, erizain batek dena ematen zuen deus ez dutenen alde eta iluntzean, nekatuta, dispentsario txiki bateko sarreran esertzen zen poeta iparramerikar baten hitzak errezitatzeko. Komunikabideak berriro hasi dira dagoeneko ahantzirik zituzten Afrikako gatazkez mintzatzeko, analisi sakonak irakur daitezke egunkarietan eta politikoei kooperanteen lana goraiatu dute. Nik Walt Whitmanen liburu zahar bat hartu dut apaletik, poema batzuk irakurri ditut erizain ezezagun baten omenez eta lurperatzen dutenean bere liburu patrikan eramanez ote duen galdetu diot nire buruari. X

KONTZERTUAK

Iruña: Oskorri taldeak bere 25. urteurrena dela eta kontzertua eskainiko du gaur, hilak 24, arratsaldeko 20:00etan eta gaueko 22:30etan, Gaiarre antzokian. Oskorriko musikarien alboan Kepa Junkera soinu jolea eta Kukubiltxoko aktoreak ariko dira. Sarrerak 500 pezetan (60 libera) izanen dira salgai.

Gares: Godfathers taldeak kontzertua eskainiko du gaur, hilak 24, Gares aretoan, gaueko 23:00etatik aurrera. Sarrerak 1.000 pezetan (40 libera) izanen dira salgai.

Lesaka: Montes Blancos *martachi* orkestra herriko pilotalekuan ariko da bihar, hilak 25, gaueko 23:00etatik aitzina. Tantiurumai-ru ikastolaren eskutik. Sarrerak 1.000 pezetan (40 libera) izanen dira salgai.

Zubiri: Bihar, hilak 25, gaueko 01:00etatik aurrera, Joselu Anaiak taldeak kontzertua eskainiko du Gau Txori aretoan.

ERAKUSKETAK

Lizarr: Arabako Arte Eder museoako arte garaikidearen bilduma Gustavo de Maeztu museoan ikusgai izanen da urtarrilaren 16ra arte.

Zangoza: Nafarroako %0,7aren aldeko plataformaren eskutik, *Jar ezazu martxan zure elkartasuna* ikusgai izanen da Kultur Etxean hilaren 30era arte.

Tafalla: Andres Indurain, Josetxo Lorient eta Jose Antonio Perez argazkilarien lanak ikusgai izanen dira hilaren 29ra arte herriko Kultur Etxean.

BESTELAKOAK

Barañain: IKako Sahats euskaltegian hiruhilabeteko berriari begira izena emateko epea hilaren 31 arte izanen da zabalik, ordu-tegi eta urrats guztietan. Informazio gehiago jasotzeko deitu 18 83 25 telefonora.

Lizarr: Udaleko Gazteria Batzordeak bere logotipoa hautatzeko lehiaketara deitu du. Horretan parte hartzeko bete beharreko baldintza bakarra 30 urte baino gutxiago izatea da. Logotipoak aurkezteko epea hilaren 30ean amaituko da. Informazio gehiago behar izatekotan deitu 54 82 24 telefonora.

Zangoza: Zangozan %0,7... *¿Cooperación al desarrollo?* leloarekin mahai-ingurua egingen dute gaur, hilak 24, arratsaldeko 20:00etan, Kultur Etxean. Horretan Mario Gaviria soziologoak, Joaquin Grau Gizarte Ongizate zinegotziak, Fermin Ezkietza Mugarik Gabe GKEko kideak eta Ubaldo Gonzalez %0,7 Plataformako kideak parte hartuko dute.

nafarkronika

Alberto Barandiaran

Antzoki bat Els Joglarsentzat, mesedez

Ez dakit ze gogo gelditu zaien Els Joglars-eko aktoreei Iruñetik alde egin ondoren, kontuan harturik astearteko emanaldian ari ziren bitartean lapurrak kamerinoan sartu eta han zegoen guztia ostu zietela. Pentsatzekoa da taldearen zale gisa sartuko zirela antzokira, alegia harapatuz gero esango zutela euren idoloak agurtzera joan zirela. Ez dakit, halaber, ze gogo geldituko zitzaizkien konturatu orduko zaintzailerik ez izateaz gainera egoera penagarriko antzoki batean egin behar zutela lan, komunitako kiratsa eszenatokian ere aditu daitekeen toki batean ia lau ordu egotera behartuta zaudela.

Javier Pascal kultura zinegotziordea desenkusatu egin zen ikuskizunaren aurkezpenean, beti egiten ohi duen gisara: ez zela haiek merezi zutena, erakutsi duten profesionaltasunari esker gaingidituko zirela traba guztiak... Baina bada garaia benetako konponbidea eman diezai-

ten gaiari, adibide asko eta onartezinak baitira oso maila altuko taldeek horrelako trantzeak jasan behar iza dituztenekoak.

Taldeak, gainera, merezi zuen. Gaur egun Iruñera etor daitekeen ikuskizun erakargarri-netako bat da katalanena, eta ez da dudarik bete-betean asmatu dutela Pujolen eta, oro har, kataluniartasunaren satira honekin. 35 urte daramatzate eszenatokietan, agintariak, eliza, armada, eta boterearen kutsua duen oro izan dute kritika zorrotzaren ikusmiran, baina euren inguruko errealitateari erreparatu diotelarik jo dute antzerki kritikaren goia. Oraindik gogoratzan dute askok Barcelona futbol taldeaz telebistarako egin zuten emanaldi laburtzua, edo *Los virtuosos de Fontaineblau* lanean espainartasunaren betiko topikoei atera zizkieten txinpartak.

Horrelako ikuskizunak maizago, eta, batez ere, dotoreago ikusi ahal izateko, ezinbesteko da azpiegitura duina.



aste ko pertsonaiak



Juan Cruz Alli
CDNko presidentea

■ Nafarroako erdi aldean bezala, CDN-n ere ekaitza handi samarra izan da, eta Juan Cruz Alli ur uherretan leporaino murgilduta ibili da azken egunotan. Joan den ostiralean, alderdiko Kontseiluak ezohiko bilkura egin zuen. Kontseiluko 54 kideek Alliren alde egin zuten, eta azken asteotan Allirekin kritiko izandako Batzorde Eragileko hamar kideetatik zazpi kargutik kendu zituzten. Horren ondorioz, CDNko hainbat militante alderdia uzten ari dira. Kanporatutakoaren arabera, gertatu dena Allik zuzendutako garbiketa izan da. Alliren ustez, berriz, Batzorde Eragileko zazpi kideak kargutik kendu zituzten lan gutxi egiten zutelako, eta UP-Nrekin harremanetan zeudelako. Ekaitza, momentuz, ez da baretu.



Dora Salazar
Eskultorea

■ Zarauzko Itsas Pasealekurako Eskultura Saria irabazi egin du Dora Salazar artista altsasuarrak, *Seria estructura-forma* proiektuari esker. Obra metalezko hiru piezaz osaturik dago. Salazarrek berak honela azaldu zuen bere lana: «Non jarriko zituzten kontuan hartuz, garrantzitsua iruditu zitzaizkidan ibilbidearen ideia. Itsasoa hain indartsua da, eta espazio zabalaren beharra hain duzu handia, logikoena zen gizakiaren tamainari lotutako piezak izatea». Zarauzko Udalak eta Espainiako In-gurugiro Ministerioko Kostetako Zuzendaritza Nagusiak 4 milioi pezeta (160.000 libera) emanen dizkiote Salazarri. Horretaz gain, bere eskulturak Zarauzko Pasalekuan jarriko dituzte».

ahaztu gabe!



IKASTAROAK GAZTETXEAN

Iruña: Otsailerako ikastaro andana antolatu du Iruñeko San Agustin kaleko Euskal Jai gaztetxeak. Heldu den hilabetean areto dantzak, euskal dantzak, bertsogintza, txalaparta eta antzerkia ikasi ahal izanen dira pilotaleku ohian. Areto dantza ikastaroa astelehenean izanen da, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara. Horretan parte hartuko dutenek bilera egingen dute heldu den astelehenean, hilak 27, arratsaldeko 19:00etan gaztetxean bertan, ikastaroaren nondik norakoan berri jasotzeko. Euskal dantza ikastaroa asteazkenetan izanen da, 18:30etatik 20:00etara. Horren gora-beheraz mintzatzeko datorren astelehenean, hilak 27, bilera egingen dute arratsaldeko 19:00etan. Bertso eskola zein egunetan egingen duten erabakitzeko bilera egin zuten atzo ilunabarrean, baina lerrook idatzeko tenorean artean ez zegoen hartutako erabakiaren berririk. Dena dela, bertso eskolan parte hartu nahi dutenek gaztetxean bertan jaso dezakete informazioa. Txalaparta eta antzerki ikastaroak urrian hasi ziren; astearte eta ostegunetan egingen dituzte.

adi!

Euskalerria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenean ostiralera, *Zokobatalu* goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segit hola* gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriket-tak.

Irati Irratia FM 107,7n eta 103,8n

Ostiraleroko *Txirristi-Mirristi* hau-rrantzako saioa 12.30etan.

Leitza

Mozorro egunak abian

Gaur hasi eta asteartera bitartean iraungo dute herriko inauteriek aurten

Hasi dira Nafarroako herrietan barrena aurtengo inauteriak. Aste-buru honetan, leitzarrek izanen dute mozzorro egunekin gozatzeko parada. Gaur bertan hasiko dira aurtengo ekitaldiak eta datorren asteartera arte iraungo dute. Urtero bezala, puska biltzea izanen da inauterietako protagonista nagusia. Herriko auzoetan barna ibiliko dira gazteak.

Erredakzioa / Iruñea

POLIKI, Nafarroako herri guztietara ailegatzen ari dira inauteriak, mozzorro egun bereziak. Gaur hasi eta asteartera bitartean, leitzarrek izanen dute atsauretzeko nahikoa aukera. Egun hauetan ekitaldi ugari izanen dira herriko taldeek antolatuta.

Gaur, hasteko, Iñurrategi anaiek azken espedizioen emaldia eskainiko dute zineman, IKAK, Aurrera Kultur Elkarteak eta Euskara Zerbitzuak antolatuta. Baina inauterietako berezko ekitaldiak bihar hasiko dira. Arratsaldeko hiru eta erdietan, Leitzaoko gazteak herrian barna aterako dira eskean. Gau partean, berriz, bederatzi eta erdietan, atsaure afaria izanen da Gazta Asanbladaren eskutik.

Igandean pilota partidua izanen dira, Aurrerako Pilota Eskolak antolatuta. Leitzaorrek azpeitiarren kontra ariko dira. Ondoren, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, bazkaria eginen dute Pilota Eskolako haurrek. Kirolaz gain, izanen da besterik Leitza-



Mozorroren aukera anitz izanen dute leitzarrek datozen egunetan.

ARTXIBOKOA

igandean. Aurten, hain zuzen, leitzaoren arteko kanta saioa antolatu du IKAK. Antolatzaileek jendearen partehartzea eskatu dute, jende nahikoa ez badago bertan behera geldituko baita kanta saioa.

Arratsaldeko zortzietan, maskarada eginen dute Torrea Baztordeak eta Aurrera Kultur Taldeak antolatuta. Kanta saioa bertan behera gelditzen bada, zazpietan izanen da maskarada. Arratsaldean eta gau partean, Etxakit taldeak alaituko ditu bazterrak. Egun osoan, Eskoziako The Facking Story txaranga

izanen da herrian.

Astelehenean eskean aterako dira herriko gazteak, goizeko bederatzietan. Sakulu, Erreka, Arkiskil eta Gorritaran auzoetan barrena ibiliko dira. Bueltatzean, bazkaria eginen dute Aurrera elkarteetan. Haurrentzako ekitaldirik ere izanen da. Arratsaldeko lauretatik aurrera, hain zuzen, parke mugikorra jarriko dute pilotalekuan, Kultur Taldeak antolatuta. Gau partean, Amaia eta Kristina trikitaleriek jarriko dute musika Leitzaoko bazterretan.

Asteartea izanen da aurtengo azken mozzorro eguna. Goizeko

bederatzi eta erdietan, Erasotera joanen dira gazteak eskean. Eguerdian, hamabi eta erdietan, umeen kalejira izanen da, eta arratsaldeko hiruretan, berriz, bazkaria eginen dute. Ordu berean, haurren txanda izanen da berriro, eta atsauretuta ibiliko dira plazan, txarangaren laguntzaz. Ondoren, txokolate jatea eta bonba japoniarrek egonen dira beraientzat.

Azkenik, arratsaldeko zazpi eta erdietatik gaueko hamarretara, eta hamaika eta erdietatik goizaldera arte, Etxakit taldeak alaituko du giroa. X

Lizarra

Europako laguntza jaso du Txiki Merced taldeak

■ Herriko Merced auzoan egiten dute lan kideek

Erredakzioa / Iruñea

LIZARRAKO Txiki Merced gazte taldeari 860.000 pezetako dirulaguntza eman dio Gazteak Europarekin programa europarrak. Taldea bederatzi boluntario osatzen dute gaur egun, eta, batez ere, Lizarrako Merced auzoko biztanleekin egiten dute lan. Jaso berri duten dirulaguntzari esker, euren lanarekin jarraitzeko aukera izanen dute. Orain lau urte sortu zen elkarte honek Merced auzoko ijitoei laguntza ematea du helburu.

Europatik jasotako dirulaguntza, dena den, ez da Lizarrako taldeak jaso duen bakarra, Merced auzoan garatuko

du ten proiektuak Nafarroako Gobernuaren eta Lizarrako Udalaren laguntza ere izan baitu. Txiki Merced taldeak abian jarriko duen proiektua Merced auzoko gazteei dago zuzendua batez ere. Boluntarioek Merced auzoko hiru eta hamalau urte bitarteko haurrekin egiten dute lan. Astean bitan egoten dira haiekin, Solipen ijito elkarteak utzitako etxean. «Gazteak motibatzea da gure helburua», aipatu dute. Europako laguntzari esker, ekitaldi berriak jarriko dituzte abian. Besteak beste, aldizkari bat kaleratzeko asmoa du Txiki Merced taldeak. Antzerkia eta eskulan tailerrak ere martxan jarriko dituzte. X

Tutera

Ipuin lehiaketa antolatu du Castel Ruiz zentroak

■ Martxoaren 12an bukatuko da aurkezteko epea

Erredakzioa / Iruñea

TUTERAKO Castel Ruiz kultur zentroak Tuterako Hiria Haur eta Gazteentzako Ipuin Lehiaketa antolatu du bederatzigarrenez, eta parte hartzeko deia zabaldu die jada Tuterako hamaika eta hamabi urteko neska-mutuek hartu ahal izanen dute parte, bigarrenen hamahiru eta hamalau urtekoek, hirugarrenean hamabost eta hamasei ur-

tekoek, eta laugarrenean, azkenik, hamazazpi eta hemezortzi urtekoek. Partehartzaileek martxoaren 14ko arratsaldeko ordu biak baino lehenago aurkeztu beharko dituzte lanak Castel Ruiz kultur zentroko egoitzan bertan.

Kategoria bakoitzeko bi irabazle aurkeratuko dituzte epaimahaiko kideek. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, ipuin sarituak aurtengo Liburuaren Azokarekin batera kaleratuko duten argitalpenean agertuko dituzte. Epaimahaia apirilaren 18an jakinaraziko du erabakia, eta orduan jakingo da kategoria bakoitzeko irabazleak nor diren. X

Sakana

'Euskara denon esku' kanpaina jarri du abian Sakanako Mankomunitateak

■ Elkartean euskara indartzeko asmoz eta Siadecoren laguntzarekin

Erredakzioa / Iruñea

SAKANAKO Mankomunitateak, Siadecoren laguntzaz, Sakanako elkarteetan eta eskola orduetatik kanpoko jardueretan euskara bultzatzeko egitasmoa jarri du abian, Euskara denon esku leloarekin. Lan esparruari dagokionez, irakaskuntzaren alorreko erakundeak, elkarteak eta udalek antolatutako ekitaldiak ukituko ditu proiektuak, hala nola haurtzaindegia, ikastetxe eta ikastolak, musika eskolak, euskaltegi eta akademiak, kirol, kultur eta musika elkarteak, gizarte mugimenduak eta abar. Talde horiekin guztiekin eginen du lan Sakanako Mankomunitateak bere egitasmoa aurrera atera ahal izateko.

Egitasmoaren helburua Sakanan euskararen bultzatzea da, oro har, baita irakaskuntzaren alorrean euskararen alde egiten ari den lana indartzea ere, elkarten eta eskola orduetatik kanpoko jardueren bidez. Horretarako, egitasmoaren inguruan guztien inplikazioa lortu nahi dute antolatzaileek. Halaber, oztipoak eta beharrak zeintzuk diren jakin nahi dute egitasmoaren bidez, euskararen egoerari buruz ahalik eta datu zehatzenak lortzeko. Xedea erakunde edo elkarte bakoitzean euskara ardura-dun bat izendatzea da, eta euskararen ezagupen eta erabilpenaren hobekuntzari begira helburu zehatzak onartzea.

Hori guztia lortzeko, elkarte eta erakunde guztiak bisitatu dituzte, egitasmoaren berri emateko, euskara arduradunak izendatzeko eta hitzarmenak sinatzeko. Hitzarmenei dagokionez, erakunde bakoitzaren konpromezuaren mallaketa egingo dute. Lehenengo mailan, ageriko elementuetan euskara gutxienez erdararen maila berean erabiliko dutenak egonen dira; bigarrenen, euskararen erabilpenari barne nahiz kanpo harremanetarako bideak zabalduko dizkio tenak; eta hirugarrenean, barne nahiz kanpoko funtzionamendu nagusia euskaraz egiten dutenak. Oinarriko konpromezu horiek elkarte edo erakunde bakoitzaren fitxan zehaztuko dira, gero segimendua egin ahal izateko.

Datuak eta hitzarmenak lortuta, Siadecok aurrera begira jarraitu beharreko lan ardatzak zehaztuko ditu. Sakanako elkarteekin harremanetan jartzeko hil honen bukaera eta otsail osoa erabiliko dute antolatzaileek. X



Berako txistulariek eta dantzariak harreman-estua izan dute beti.

JON ABRIL

Txistulari zahar eta gazteen bilkura

Txistu Eguna dela eta, jende anitz hurbilduko da igande honetan Bera aldera

Euskal Herriko Txistulari Elkarteak argitaratzen duen 'Txistulari' aldizkariaren azken alean Nafarroako hainbat lan bildu dira. Tartean, berreskuratutako obrarik ere bada, eta hori ospatzeko eta jendearen aitzinean lan hau aurkezteko besta eguna antolatu dute Berako txistulari gazteek eta elkarteak iganderako.

Jon Abril / Bera

BERAKO lehenagoko eta oraingo txistulariak elkartzeko helburua du igandean egingo den Txistu Eguna. Baina horretaz gain, bertze asmorik ere badute antolatzaileek. Txistulari aldizariak Berako Besta Berri edo Korpus egunean jotzen diren doinuak bildu, moldatu eta argitaratu ditu bere azken alean.

Aitzakia horrekin, eta aldizkaria Berako herriari aurkezteko asmoarekin egitarau xumea baina polita antolatu dute igandeko. Eguerdiko hamabietan, Berako Udalak ongi etorria egingo die herriko etxean hainbat erakunde eta laguni. Bertan izango dira Mikel Aranburu Euskal Herriko Txistulari Elkarteako lehendakaria, Alex Iribar zuzendariordea eta Rikardo Madinabeitia Nafarroako ordezkaria; Antonio Goia, Berako doinuak bildu eta transkribatu zituen; Tomas Yerro, Principe de Viana erakundeko zuzendaria; eta Manuel Iriarte, Berako alkatea. Ondoren, Herriko Etxeko plazan bilduko dira antzinako zein oraingo txistulariak, eta Kultur Etxerako bidean Besta Berrian zein Berako bestetan jotzen diren alkate soinuak joko dituzte.

Kultur Etxean ospatuko da ekitaldi nagusia. Bertan, Korpus eguna antzeztuko dute. «Pedro Etxenike txistulari beratarrak 1933an Txistulari aldizkarian Korpus eguna nola ospatzen zen idatzi zuen. testu hori oinarri

harturik, antzeppen ttiki bat egingo dugu. Guztia egun horren gisan girotua egongo da», azaldu du Eneritz Mitxelena, Berako txistulari eta antolatzaileetako batek. Aldi berean, Antonio Goia-ri omenaldia eskainiko zaio. Antonio Goiak lan handia egin zuen berez Berakoak ziren doinuak biltzen eta idazten. «Beran gorde diren txistu doinu guztiak gizon honi esker izan da, berak molda-

zezaten mugimendu bakoitzari zer nota zegokion», argitu du Iñaki Irazokik, antolatzen ibili den bertze gazteetako batek.

Ekitaldian bertan, Teodosio Aldabe txistulari beratarrak idatzitako minueto bat joko dute txistulari gazteek. Minueto hau Txistulari Elkarteak berreskuratu eta moldatu berri du eta desagertu zenetik lehendabiziko aldiz joko da jendearen aitzinean.

edozein besta dela ere, goizean goiz egiten duten ibilbidean Berako zortzikoa jotzen dute. Ilekueatik hasi, Alzate kalearen barrena Udaletxe plazaraino joaten dira.

Kultur Etxea egun horretan Legia eta Alzate karrikak apaintzen diren bezalaxe apainduko dute igandean, lore, iratze eta bertzelakoekin. Txistulariei egun horretako hamaiketako Iriarte



Dantzaria egun garrantzitsuetan laguntzeko txistulariak ez dira inoiz falta izan Beran.

JON ABRIL

tu zituelako eta partituratan jarri. Bestetan eta Korpus egunean jotzen diren alkate soinuak, Korpus eguneko zortzikoa eta Berako makila-dantzak berak bildu zituen, eta azken horien gainean marrazki ttiki batzuk egin zituen, dantzariak eta txistulariak jakin

Harmonizaturik argitaratu du Aldaberen kantu hau Txistulari aldizkariak.

Kultur Etxean antzeztuko dena Besta Berri egunean txistulariek egiten dutena izanen da gutti gora-behera. Egundeko horretako ohituren arabera, txistulariek,

etxean eskaintzen zaie, eta igandean ere bertako kideek banatuko dute luntxa.

Igandeko ospakizuna bukatzeko, Gure Txokoa Elkartearen bilduko dira guztiak bazkaltzera, lehengo eta oraingo txistulariak eta bestan parte hartuko dutenak.

Eneritz Mitxelena: «Denek hagitz ongi hartu gaituzte euren etxeetan, Txistu Egunaren ideia asko gustatu zaielako»

Iñaki Irazoki: «Ez zaigu iruditzen kontuan hartzen ez gaituztenik; alderantziz, gero eta garrantzi handiagoa ematen digute»

Txistulariak, gero eta garrantzitsuagoak • Ez da Besta Berri eguneko, hala ere, Beran txistulariek jotzen duten egun bakarra. Egundeko garrantzitsua da hau ez bairik gabe txistularientzat, baina herriko bestetan ere herrian zein baserrietan ibiltzen dira jotzen, alkate soinua. Badira ere bertzelako ospakizunak euren presentzia somatzen dena. Olentzeroan eta Diostesalbean, Gabonetan, euren laguntzarekin kantatzen dute herritarrek kalez kale.

Zenbaitetan, hala ere, txistularien lana ez da gehiegi eskertzen eta hori frogatu ahal izan dute egunotan antolatzaileek. «Denek hagitz ongi hartu gaituzte euren etxeetan, ideia anitz gustatu zaie eta gaur zabalduko den erakusketarako argazkiak utziko zizkigutela erran ziguten. Argazkiak bilatzen hasi eta soilik dantzariari atera izan dietela ohartu dira franko, edo gu guttitan agertzen ginela», azaldu du umoretsu Eneritzek. «Guri, hala ere, ez zaigu iruditzen kontuan hartzen ez gaituztenik, alderantziz, gero eta garrantzi handiagoa ematen ote zaion gaude», erantsi du Iñakik.

Abenduan ekin zioten besta egun hau prestatzeari, eta ihenbizikoa lehen garai bateko eta oraingo txistularien zerrenda osatzea izan zen. Hainbat jendek txistu irakasle izan den Iosu Golarengana jo zuten. «Bere ikasleak izandakoak jarri zituen zerrenda batean eta argazkietan begiratu osatzen joan ginen. Etxe etxe ibili ginen jendea animatzen eta guztiak eman ziguten eurekin txistua jo zuten berri», argitu du Iñakik.

Guztira 60 bat txistulariak osatu zerrenda lortu dute. «Bazkari-tara erdiak baino gehiago animatu dira, 40 bat inguru», azaldu du, «jotzera, aldiz, gutxiago; anitzek aspaldi ez dutelako txistua jo, bertze batzuei jotzea ahanzi egin zaielako eta bada lotsa ematen dionik ere».

Hurrengo urteetan egun hau egingo duten ez dakite antolatzaileek, Txistulari aldizkariak aitzakiatzat hartuta egin baitute, Antonio Goia omentzeko aprobeztatu eta Teodosio Aldaberen lana ezagutzera emateko. Beharbada, Euskal Herriko Txistulari Elkarteak aurtan Nafarroan egingo den ekitaldi bakarra izango da, eta bertan bilduko dira lurralde guztietako partaideak. Igandean, beraz, Beran txistularien doinura dantzatzeko paradirik ez da falta izanen.

Berako txistularien jaia igandean

Galdu ez den ondarea

Herriko txistulari zaharren ohiturak eta lanak zaintzeko prest da Berako belaunaldi gaztea

Edurne Elizondo / Bera

BERAKO txistularien historiak izen handiak utzi ditu. Horien artean garrantzitsuenetakoa da aipatu Antonio Goia Iraolarena, txistulari eta dantza-maisu beratarrena. Berako partitura eta dantza zaharrak jasotzeko eta zabaltzeko lan handia egin zuen, eta berak idatzita utzitako lanei esker, galduta ziren horietako asko berreskuratu ahal izan dituzte bere ondorengo txistulari eta dantzariak.

Antonio Goia bere osabak bezala, haren biderei jarraituz, Berako dantza eta doinuak berreskuratzeko lan handia egin du Iosu Goiak ere. Berari eta berekin ikasitako beste beratar batzuei esker, dozenaka haur eta gaztetxo ari da egun txistua jotzen eta ikasten Beran. Azken aldian, Musika Eskolako irakasleek dute txistuaren irakaskuntzaren ardura. Eta Iosu Goiak azpimarratu duenez, «Berako txistuaren inguruko ohiturak ezagutzen eta zaintzen ahalegindu dira beti, zorionez».

Elkarri erakutsi, ez galtzeko • Iosu Goiarekin batera, Berako beste garaletako txistulariak ekarri ditugu gogora, tartean Pedro Etxenike ezaguna. Berako Herriko Etxeko txistulari ofiziala izan zen, baina Espainiako gerra zibila piztean alde egin zuen. Ondoren, Donostia izan zuen bizileku. Urtero, baina, Korpus egunean itzultzen zen Berara, bere txistu maitea jotzera.

Berako Herriko Etxeko txistulari izan zenean berak jaso zituen hainbat doinutako partitura guztiak, baina Berako herriak eman dituen beste txistulari batzuek gogoratu dutenez, «ez zuen oso gogoko horiek banatzea». Jose Mari Gainzaren hitzak dira horiek. Dena den, Etxenikek berak eskuz idatzitako hiru partitura gordetzen ditu Gainzak oraindik, *Erreberentzia*, *Bordon dantza* eta *Berako alkate soinuua*, alegia. Beste askok bezala, Antonio Goiak utzitako partituren bidez ikasi zituen Berako makila-dantzak, eta dantzen bidez, txistua.

«1950. urtean hasi nintzen txistua jotzen, 19 urte nituela. Orduan, dena galduta zegoen», gogoratu du Gainzak. Josetxo Azkonarekin batera, Santiago Irigolien txistulari lesakarraren eskutik ikasi zuen Jose Mari Gainzak eta 25 urtez jo zuen txistua Berako jai egun garrantzitsuetan, Korpus eta San Esteban egunetan, batez ere. Etxenikek gordetakoak ez ezik, beste hainbat partitura ere bildu zituen garai hartan Gainzak, Antonio Goiaren eskutik, eta baita Ignacio Larramendi txistulariaren eskutik ere.

Beran ez da inoiz herriko doinuak kalera ateratzeko eta herriko dantzariak laguntzeko txistularirik falta izan. Hori lortzea, dena den, zailagoa izan da batzuetan. Jose Mari Gainza, adi-

bidez, Berako txistulari bakantekoa izan zen garai batean. Baina bere ondotik ere hartu zuten beste beratar batzuek txistuaren lekukoa.

Juan Ignacio Oiarzabal eta Juanito Matxakok, adibidez, Gainzaren ikasle izan ziren, orain hogeita bost bat urte. «Ordukoa ez zen inolaz ere oraingoa bezalakoa. Entzunez ikasten genuen eta solfeo pixka bat besterik ez genekien. Orain, Musika Eskola dago eta txistulari talde hagitz polita eta ona». Oiarzabalek, dena den, urte eta urteetan zehar hainbat eta hainbat txistularik

egindako lana goraiatu du, «beti egon baita norbait besteei erakusteko prest. Horri esker, eta irakasteko eta ikasteko prest zegoen jendea egon delako beti, gure herriko ohitura anitz ez da galdu».

Gazteak jarraitzeko

prest • Berako txistularien katean Musika Eskolako ikasleak dira azken katebegia. Horien aurretik, Musika Eskola bera sortu aurretik, Iosu Goiak eta Marta Irazokik egindako lana ezin da ahaztu, Berako ikastolan eskainitako ikastaroen bidez

txistuzale asko sortu baita Beran, orain eskolan direnak.

Beratarrak ez dira Berako txistulari gazteen kalitatea nabarmentzen duten bakarrak. Ricardo Madinabeitia Euskal Herriko Txistularien Elkarteko kideak ere gazteen gaitasuna goraiatu du. «Txistulari eskola garrantzitsua dago. Iazko txistularien txapelketan, adibidez, 16 urtetik beharagoen Iruñeko finalean, beratarrek izan ziren lehenengo lau sailkatuak», azpimarratu du.

Berako txistularien azken belaunaldi honek, gainera, ez du

iraganarekin duen lotura galdu naahi. Iñigo Villanuevarentzat, adibidez, «lehenago eta oraingoa lotzeko» bide aproposa da igandeko jaia. Antonio Irigolien txistulariak jasoko duen omenaldia ere gazteen ideia da neurri batean. «Iaz ezagutu genuen, Sanferminetan Iruñera jotzera joan ginenean Iosurekin. Bere garaiko istorio asko kontatu zigun, argazkiak erakutsi zizkigun eta hainbat doinu abestu ere bai. Hagitz ederra izan zen, hagitz hunkigarria, bai guretzat bai berarentzat», gogoratu du Mikel Telletxeak.



Txistulari taldeko gazte batzuk ageri dira argazkian, Musika Eskolaren atarian.

JON ABRIL

◆ Iñaki Irazoki ◆ Txistularia

«Aukera ugari eskaintzen du txistuak»

Hamasei urtetik azpikoen Euskal Herriko Txistulari Txapelketa irabazi zuen iazko maiatzean Iñaki Irazoki beratarrek. Orain zortzi urte, zortzi urte zituela, ekin zion txistua jotzeari. Berako beste txistulari gazteak bezala, Iñaki igandeko besta ahalik eta hoberen ateratzeko lanean ibili da azken asteetan. Gurekin hitz egiteko, baina, aurkitu du tarterik.

■ **Txapeldun izan ondoren, berdin ikusten al duzu orain txistua? Ez al da musika tresna mugatua?**

Nik uste dut ezetz, aukera ugari eskaintzen duen musika tresna dela iruditzen zait. Konbinazio

anitz dira posible: tronpetekin, abesbatzekin, pianoarekin... eta, gainera, besta giroan ere hagitz ballagarria da.

■ **Zein lan egiten ari da bertze musika tresnekin trebatzeko?**

Nagusiki tronpetarekin egin da, baina bertze mota bateko musika tresnekin ere gero eta gehiago lantzen da, batez ere txistua lehen baino afinatuagoa dagoelako, eta horrek gainerako musika tresnekin nahastea errazten du.

■ **Zein asmo dituzu txistuarekin jarraitzeko?**

Txistua ufzi, ez dut utziko. Ahal dudan neurrian aitzinera segituko dut, mantsuagoa izan behar badu mantsuago, baina segitu egingo dut. Bosgarren mailan nago eta zortzi dira guztira; beraz, hainbertze ere ez da falta!

■ **Eta talde edo orkestra handi batean sartzea?**

Momentuz Berako txistulari taldean, dantzariekin, abesbatzarekin... ongi nabil. Gure irteerak ere baditugu eta...

■ **Osasuntsu al dago txistua Nafarroan?**

Beran bezala, Lesakan, Bañanen eta Sakanan anitz aditzen da, txistulariak egon badaude. Euskara solasten den eremuetan ageri da batik bat txistua. Aldiz, Iruñea, Zangoza edo Erribera aldean makalago dabil. Buñuelen izan ginen ikasturtearen hasieran eta bertakoek erran ziguten txistu bat ikusten ez zutenetik urte anitz pasatuak zirela eta anitz pasatu beharko zirela berriz bertze bat ikusteko.

Erribera aldean, poliki-poliki

ari da sartzen, musika eskolen bidez eta baita dantzarien bidez ere. Hango dantza taldeek gaiteroak erabiltzen dituzte eta hori izan da euren usadioa, baina hementxe dantza taldeetan gaita sartzen ari den bezala, hangoetan ere txistua sartzen ari da. Txistulariak behar izaten dituzte dantza taldeek, eta orduan norbait animatzen da txistua ikastera.

■ **Eta gainerako lurraldeetako egoera nolakoa da?**

Ez dut uste alde handiegirik dagoenik, txistua aspaldidanik jotzen den tresna delako. Bilbo edo Gasteiz bezalako hirietan txistulari anitz dago. Araban, Nafarroan bezala, gaiteroak gehiago ikusten dira dantza taldeetan, baina ezin da erran txistularirik ez dagoenik. x

Xanti Begiristain

Espainiako erregea berriz ere Euskal Herrian

■ Egia da jaun-andreok. Azken urte hauetan sarritan etortzen ari da Espainiako erregea Euskal Herrira. Garai batean aita zela, eta beste batzuetan gonbidapenak direla, kontua da ia-ia edozein egunetan dabilkigula inguruetan paseoan. Eta beste horrenbeste seme-alabak.

Badaude gauza batzuk hasiera batean pixka bat harritzen nautenak, baina jakina, apur bat pentsatuz gero berehalaxe aurkitzen zaie gauza harrigarri horiei azalpenen bat.

Bateko, Espainiako errege-erreginak ez ditu inork aukeratu hauteskunde batzuen bidez, baina hala ere, ematen du horrek ez dituela batere kezkatzen, eta lasai-asko ibiltzen dira alde batetik bestera paseatzen, enpresak edo dena delakoak inauguratzen eta abar, nahiz eta inor ordezkatu ez. Beren

gehiago, askotan lagun minak direla dirudi.

Baina igaro gaitezen orain komentatzera Sestaon gertatutako zenbait afera. Esate baterako, hots handiz aldarrikatzen dute Eusko Jaurlaritzatik Sestaoko altzairutegi trinkoak 300 langileri emanen diela lanpostua, Europako modernoena dela, Ipar Amerikako puntako teknologia duela, oso lehiakorra izanen dela, ekoizpena handiagoa eta merkeagoa izanen dela, eta gainera, geroago beste lantegi batzuei ere lana emanen diela. Hitz batez dena da ona, ez omen du gauza negatiborik. Baina informazio hau orekatuxeagoa izan dadin, esan dezagun garai batean 13.000 langile inguru aritu zirela lanean lehenengo altzairutegi edota lantokietan. Hortaz, oso zaila iruditzen zait izanen dela lehengo langile kopuru osoa enplegatu ahal izatea orain, na-



sendiaren oinordekoak izatea beste meriturik ez dute; meritu txatxua beraz, baina beno, beraiek sinesten badute zer egingen diegu ba? Zeren eta odol urdinaren kontu eta ipuin horietatik, sobera ongi baitakigu arrastorik ere ez dutela, baina dirudienek aipatu bi pertsona horiek horretarako *jaio* dira, eta antza, ez dakite bestelako gauza handi eta askorik egiten. Niri lotsa galanta emanen lidake ziur aski, baina argi dago, monarka horiek horretarako balio dute eta kitto. Besteren bizkarretik hartutako berebiziko dirutza pilak xahutzen dituztela egia ez balitz gaitz erdi!

Eta besteko, deigarria da ikustea Jose Antonio Ardanazak zer-nolako zaletasuna hartu dion Juan Carlos de Borbon gonbidatzeari, zeren eta jakina, erret familiak hori, aitaren gaixoaldiaren garaia kenduta, gainerako aldi guztietan hemengo lehendakariak edota beste agintariren baten gonbitea hartuta etorri izan baita.

Baina noski, gu ere gure adinarekin, dagoeneko ez gara hain inozo, eta ederki konturatzen gara, parafernalia horiek guztiek Ardanza lehendakariari dakarzkieten etekin, onura eta mozkin bikainak. Nola agertuko litzateke ba, bestela, horren adiskidetsu, Euskal Herriari bere osotasunean batere mesederik egin ez dion pertsona horrekin? Are

hiz eta gerora lanpostu gehixeago sortu. Ibar Ezkerrean jende asko omen dago langabezia.

Eta beste gauza bat ere ez dakit zein puntutaraino izan daitekeen baikorra, alegia, gaur egun altzairutegi horren % 60 esku pribatuetan omen dago, eta urtebete barru % 100 egonen omen da. Printzipioz behintzat, azkeneko maniobra hau neroni ez zait guztiz fidagarria gertatzen.

Bukatze aldera, bi gauza apuntatu eta azpimarratu nahi ditut, Sestaoko inaugurazio horretan jazo zirenak: lehena, konturatu al zineten errege jaunak desestali zuten plaka gaztelera hutsean zegoela? Beno, ba ni behinik behin bai, ohartu nintzen Espainiako hizkuntza inperial eta ofizial bakarrean zegoela (a zer-nolako begirunea euskaldunon hizkuntzari, e? Erantzukizuna norena? Seguru asko handiena Eusko Jaurlaritzarena). Eta bigarrena, zer deritozue erregeak luzitu zuten *txapelari*? Niri, benetan, erabat barre-garria iruditzen zait beren erret eskuetan behin ere lanabes bat lan egiteko hartu ez dutenek horrelako kaskoa jartzea; ia-ia zilegi ez dena.

Eskerrak oraindik gelditzen den jendea aurrez aurre protestatzera eta salatzaera auzartzen dena! ■

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Yomingo Soubelet kalonjeraz mintzo

■ Yomingo Soubelet —agian Zubeleta deitura jatorragoa hobetsi beharko?—, Hazparden sortua dugu 1897.eko abuztuaren 10ean. Ikasketak Hazparne eta Beloken burutu ostean, apezgorakoak Baionako apezgaitegi nagusian egin zituen, 1924.eko uztailaren 13an apez sartzeko. Erroman bi urtez ikasten eman ostean Donibane Lohitzunen ihardun zuen bikari 1926-1928 urte bitartean. 1928.ean eliz nagusiko itzalpean sartu zen, eta bertako bikario bi urtez izan ostean, apezpiquaren idazkari izendatua izan zen 1937.era arte, bien bitartean, 1933.ean ohorezko kalonje izendatu zutelarik. 1937.etik eta hamar urtez, Azkarateko erretora izan zen, eta 1947.etik aitzina Hazparden herri misionista. 1951.ean euskaltzain urgazle izendatu zuten. Azkenekoz 1967.ean apez-zahartegian sartu zen Baionan, eta bertan itzali zitzaigun 1970.eko uztailaren 28an. Ospe handiko predikaria, *Eskualduna* aldizkariaren buruzagi eta moldatzailea izan zen 1930-1937 bitartean, baita *Gure almanaka* argitalpenarena ere. *Gernika* eta *Eusko Jakintza* aldizkarietan izkiriatu zuen batik bat. Frantsesez zer edo zer ondu bazuen ere. *Le bienheureux François Dardan* esaterako, gehien batean euskaraz egin zuen, Lafitteren aburuz doi-doi panpinaturik zerabilkan Hazparneko eskuaraz.

Euskaltzaleen Biltzarraren 1934.eko bilkurako ondu sermoia, *Donibane*ko predikua, *Gure Herria* izparringian ageri zuen hiru zatitan banaturik: euskara, etxea, erlijioa. Hartan argi aski utzi zuen euskarari zion atxikimendua: «Uriheak ditu, chaharrek hain berea zaukaten chamarra, bazterrerat utzia dela. Alta jauntzi pollita zen chamarra. Sorbalda gaztek ez nahi chamarrak. Gisa berean behar othe zauku itzaldutako eskuara, ezpain gaztek ez dutelakoan ibili nahi?». Euskal Herriko arazoak konpontzeko ere aisa begiztatzen zuen jarrai beharreko bidea: «Auzo herrialde batetako lehen buruzagiak, Mussolinik, erran du goraki, Frantziarenak egin duela ez bada Frantses etchea haurrez gehiago bethetzen. Ez gira hortaratuak Eskual Herrian. Haurrik gabe, edo haur eskasarekin laster errekalat loake eskualdun etchea. Nola aldachakak mahats ondoaren lagun eta sustingu, hala haur gazteak etche eskualdunaren jasalle, begiratzalle, arthatzalle». Honelakoxea genuen orobat idazlari lapurtarra, ohi denez, atzerakoia, eskuindarra, txuria, gauzak oro dotrinaren iragazkiak gaibahetu behar dituelako uste hertsia duen horietakoa. Horregatik bere liburu guztien ia gai profanoa garatzen duen bakarra Filipe Petain buruzkoko genuke, nahiz funtsean, gainontzeko beste liburu guztien asmo erlijiosoan oihartzun ozena bereziki honetan ere nabaria izan: *Petain marechala frantziarren aintzindari: familia, lana, Frantzia*, Okzitaniako Tolosan 1941.ean. Asmoak argi eta garbi azaldu zituen berariazko aintzin solasean; «Petain Marechal handiaren bizia eskaintzen dautzuet, eskuaraz egina da eta eskuara errechean». Ezta Petain zenaren bibliografia busti soil bat, bai apologesiazko lana ordea, Petainzale sutsu eta itsu baitagerkigu Hazparneko: «Gerlari ohiek, bi gerletako gizonak bat egin behar dute Petainen inguruan eta haren aldean. Batzuek eta bertek ahantz dituztela lehengo kalapita bideak, orhoituz bakarrik, batasunak chutik duela atchikiko Frantzia. Jarraik ditela Petain; hari eta haren go-biernoari». Azpiko asmo guztien onartuagatik ere, ezin uka liburu honen balio historikoa are jatorriz euskara garbian tajaturik dagoela. Bertan jaso hainbat eta hainbat berrik gainera euskal historiari lotura zuzena badio ezpairik gabe: «Ez dugu gogotik galdutako gure eskualdea Espainiako gerla phiztuz geroztik, beldur handia ginuela, auzo erresuman phiztu sua hedatuko zela gure lurretara. Egia erran, orduan kargutan ginuen gobernio gorri front populaire-tiarrak, ahalak oro egin zituen gerlaren phizteko. Hendaiako eskualdetik ez zen deus igaiten Espainialat, athe hori etsia zen hertchiki, bainan bestialdeko athea idekia zagon zabal zabala. Norik erranen du zombat eta zombat tresna hortik sartu den Espainian gorrien laguntzeko?». Jakina da Espainiako gerrate zibila ahiturik Frantziaren enbaxadorea genuela Donostian, Franco-rekin adiskideturik: «Lehen lana, Petainen iduriko, Espainiatik Frantzialat heldu zen jende troparen Francori berriz hararaztea. Gaztigu zerbeit eman behar balitz, herritarrek eman zezaten». Bestalde Petainek ministrariaren artean euskalduna izendatu zuen, Uharteko auzapeza zen Jean Ibarnegarai. Haatik etzuen horregatik bakarrik gailentzen eta miresten: «Errepublikak, huna lurtean, odolean, lohian eta desohorean. Eta huna nun agertzen den Petain Marechala, chutchuta, begia argi eta garbi, bihotza sano, eskua fermu, Frantziaren ongia bakarrik chede duena. Hori da gure buruzagia, zuzenezko manatzalle handia».

Esan bezala, bere lan gehienak erlijiosoak ziren, eta hauetan Donamariari eskeiniak ere usuenak. 1942.ean San Josep Jesusen aita ordeko Mariaren espos laguna izenburuko agertarazi zuen Balonan. Ber urtean Lurdeko ama birjina, Lafittek goraki hobetsi zuena. 1945.ean Fatimako ama birjina, 1946.ean Jesusen bihotz sakratua, eta 1948.ean Bulogneko ama birjina. Azken hau Pas-de-Calais aldeko Bulogneko andredenaren iduri ibiltariak mintzo da maratz, halarik ere eskeini aipagarrienak 1946.eko abenduan iduriak Iparralde osoan egin zuen ibilbidearen berri ematen dituenak oro ditugu. Bardozen hasirik —«Bai Bardoze Eskual-Herrian da. Bada hemen eskualdun frango»—, eta Lapurdi, Baxe-Nafarroa nahiz Ziberotik jarraikiz —«Hiritako haize gaichto galgarria ez da oraino sarthua. Eta ez agian sartuko. Choko hortako bakea eta zoriona akabo litazke»—. 1958.ean *Bartreserari itzuli bat* izenburuko idazki llaburra igorri zuen *Gure Herria*-ara, betliko gaien alboan iruzkin geografiko etnologikoak egiteko aukera galdu gabe: «Uste nuen Bartres herri tarro bat. Ez da hala. Herri ttipia da: 170 arima doi doia. Jendez husten ari da, Lurdek biltzen dio jende guzia, bereziki gazteria». 1966.eko Maria Goretti eta 1969.eko Jesusen bizia tajutu zituen azkenetakoak zatezkeen. ■

Aritz Leoz izanen da Babaren Erregea

Bihar arratsaldean egingen dute Altsasuko elizan Erdi Aroko ohitura berezi horren antzezpena

Bihar arratsaldean, Babaren Erregearen izendapena antzeztuko dute Altsasun, urtero legez. Aurten Aritz Leoz altsasuarrari egokitu zaio erregearena egitea. Iruñetik Nafarroako hainbat herritarra zabaldu zen jatorria Erdi Aroan duen ospakizun berezi hau, Iruñeko Mutiko Alaiak taldeak egindako lanari esker, talde hori izan baita Babaren Erregearen ohitura zaharra gureganatu duena.

Aitziber Etxaiz / Altsasu

FESTA honi buruzko lehen agiriak Karlos III.aren garaikoak dira, hau da, XIV-XV. mendeak. Berreskuratze lana astuna izan da, hainbat artxibo eta dokumentu zaharretan begiratu behar izan baitute. Gainera, koroazio jai honetan Babaren Erregeak esaten duena garai hartako testutik aterata dago; beraz, aldaketa gutxi, testuari dagokionez, Erdi Arokoa baino motzagoa bada ere. Izan ere, gaztelania zaharrean egiten baita antzeztan berezi hau. Zeremonia, noski, urtetik urtera zertxobait aldatzen da, elizaren tamaina dela eta, neska-mutil kopuruaren arabera eta abar... Hala eta guztiz ere, janzkera, haurrek daramatzaten tramankuluak (koroa, ezpatak, gurutzeak, ezkutua...) eta testua garaikoen ahalik eta antzekoenak izaten saiatzen dira. Horretaz guztiaz duten dokumentazioa oso fidela baita Jaime Izal antolatzaileetako baten arabera.

Ospakizuna Erregeetan egiten da, hau da, ilbeltzaren (urtarrilaren) 6tik 7ra bitartean, baina arazo batzuk direla medio ospakizuna atzeratu behar izan dute antolatzaileek.

Ospakizunak merezi duen

solemnitatearekin • Erdi Aroan, erregeak herriko mutil talde bat gortera deitzen zuten, euren meritu edota ezaugarri batzuegatik hautaturik. Erregeak mutil haien artean banatzen zuten opil biribil bat. Baina opilaren barruan baba bat zegoen. Beraz, baba ateratzen zitzaion mutila errege izendatuko zuten, horrek zekarren guztia-rekin. Esan genezake loteria tokatzea bezain pozgarria zela, mutilak opari franko jasotzen baitzituen eta kasu batzuetan gortean bertan bizitzea suposatzen baitzuen. Garaiak aldatu badira ere, gaur egun aukeratzeko moduak berdín segitzen du, eta erregeak mutila izaten jarraitzen du.

Beraz, bost mende pasatu arren, erregina posible batentzat ez dago tokirik. Pertsonaia garrantzitsuenak honako hauek dira: Nafarroako errege Karlos III.a, haren alaba Nafarroako Zuriñe andrea, eta honen iloba, Vianako printzea. Horiez guztiez



XIV. mendetik dago dokumentazio idatzia ekitaldi honi buruz.



Aritz Leoz.

AITZIBER ETXAIZ

gain, gudariak, nobleak, andreak, apezpikua eta abar izanen dira Erdi Aroaren itxura hartuko duen Altsasuko eliza nagusian. Guztia, bihar arratsaldean. Zin egin ondoren, Babaren Errege izendatuko dute Aritz Leoz. Gaztelania zaharrean idatzitako ia orrialde bateko testua irakurri beharko du. Hasiere batean zail samarra iruditzen bazitzaion ere, ia buruz ikastea lortu du, egunero-egunero irakurtzen baitu. Aritzek poztasun handiz baba hozkatu zuela esan digu: «Urduri jarri nintzen, baina berehala ohartu nintzen ni izanen nintzela Babaren Erregea».

Dantzariak eta abesbatzak ere hartuko dute parte • Aintzindari Dantza Taldeko kideek Nafarroako Gortetako himnoa dan-



Babaren Erregea, koroak jantzita Gorteen aurrean.

Iruñeko Mutiko Alaiak taldeak lan eskerga egin du ohitura zahar hau gureganatzeko

Karlos III.aren garaikoak dira Babaren Erregearen bestari buruzko lehen agiriak

tzatuko dute, ohikoa duten estilo dotorearekin. Gainera, Babaren Erregeari agurra dantzatuko diote txistu doinuaren laguntzaz. Erkudengo Ama Birjina abesbatzak, berriz, honako emanaldia eskainiko digu: *Cantate Domino, O occhi, Manza mia, Cibavit eos, Sacris Solemnis, Goizian argi hastian, Dadme albricias, Errinera* eta azkenik, *Agur Jai-nak*.

Ohitura zahar hau gureganatu duen taldea Iruñeko Mutiko Alaiak izan da. Hasiere batean, euren lokaletan antzeztzen zuten Babaren Erregearen koroatzea. Baina ondoren Iruñeko Misericordia etxera aldatu ziren, bertako neska-mutilen artean ospakizun hau antzezttera. Urtetik urtera antzeztzen geroz eta oihartzun handiagoa zuenez, herrietatik ere dei egin zieten, eta merindade bakoitzeko herri nagusietara eramaten hasi ziren, Altsasura kasu. Beraz, 25 urte daramate Babaren Erregearen antzeztana Nafarroako hainbat herritan egiten. X

* ◆ **Koldo Pastor** ◆ Iruñeko Orfeoiko zuzendaria

«Tresna ederra da Orfeoia»

J oan den abenduaz geroztik Koldo Pastor konpositore iruindarra da Iruñeko Orfeoiko zuzendari berria. Erroka edertzat jo du musikariak bere lan berria. Baina zaila izanen dela ere aitortu du. Orfeoi batua lortzea du helburu, «gazteentzat erakargarria izanen dena».

Edurne Elizondo / Iruñea


KOLDO PASTORREN hitzetan nabari da kontent dagoela, kontent Iruñeko Orfeoiko zuzendari izendatu dutelako, nahiz eta jakin badakien lan gogorra duela aurretik. Bultzada berri baten premia bizia du Orfeoiak eta Koldo Pastorrak dagokio ematea.

■ **Zer gogoz ekin diozu lan berriari? Erroka ala erantzukizuna da zuretzat?**

Iruñeko Orfeoia zuzentzea lan polita da, zalantzarik gabe, erroka ederra, batez ere zuzendaritza ikasi ondoren. Erantzukizuna ere bada, noski, edozein taldetan zuzendaria baita erantzule nagusia, bera da programazioaren, kalitatearen, barruko aferen eta harremanen arduraduna, guztiaren arduraduna. Baina merezi du, Iruñeko Orfeoia oso erakunde emblematikoa da, eta, egun, tresna ederra da edozein zuzendari edo musikarientzat.

■ **Orfeoiaren krisiaz mintzatu da, bultzada berria behar duela. Zuzendari aldaketa izan da lehen urratsa bide berri horretan. Hain larria al da egoera?**

Ez, nik ez dut uste, egoera ez da larria. Erran daiteke krisi bat pasatu duela, baina ez da horrenbesterako. Orain garrantzitsua da seriotasuna, diziplina eta lan egiteko gogoia da. Finean, barruko arazoak izan dira, baina musikaren alorrari dagokionez, ongi aur-



Iruñeko Orfeoiko zuzendari berria da Koldo Pastor iruindarra.

LUIS AZANZA

kitu dut Orfeoia, lan asko egin behar dugu, baina obra sakonak prestatzeko gai den orfeoia aurkitu dut nik.

■ **Zer gertatu da?**

Niretzat oso zaila da erratea. Alde batetik, ez dut iraganari buruz hitz egin nahi, aurrera begiratu nahi dut eta zer egin dezakedan pentsatu, hori bakarrik. Bestea pasatu da. Orfeoiko kideek ere hori nahi dute, eta horrela azaldu didate. Aurrera-begiratu nahi dugu denok, eta egon diren arazoak, barne arazoak finean, ahaztu.

■ **Une honetan zeintzuk dira Iruñeko Orfeoiak eman behar dituen urrats funtsezkoenak edo premia-koenak?**

Badira, bai, eman beharreko urrats batzuk, edo landu beha-

rreko alor batzuk. Batetik, ahotsa landu behar dugu; eta bestetik, errepertorioa prestatu eta proiektuak egin. Horretarako, erakundeetara jo behar dugu gurekin lan egin dezaten. Kultur erakundeen arteko elkarlana funtsezkoa da. Nafarroan, izan ere, abesbatza asko dago, gehiegi agian, eta ondorioz, jendea banatu egiten da. Hori arazo garrantzitsua da guretzat, orfeoi on bat egiteko ehun lagunetik gora behar baitira, eta Iruñeko Orfeoiak 88 kide ditu une honetan.

■ **Abeslari berrien bila zabilzate, beraz. Zaila al da horiek aurkitzea?**

Zaila da bai, Iruñeko Orfeoia ez baita erakargarria egungo gazteentzat. Ez dute konfiantzarik, susmo txarra dute. Orfeoian ahotsa galtzen dela ere entzun izan diet. Eta hori ez da inolaz ere egia. Elkartasuna eskatu nahi diet iruindarrei, Orfeoiak egun duen irudi txarra aldatzea ere niri dagokit eta.

■ **Zergatik uste duzu irudi hori duela Orfeoiak?**

Erakunde zaharra da, eta zaharra dena zaharkeria bezala ikusten da kanpotik. Horregatik ere jende berria behar dugu, gaztea, beste giro bat emateko Orfeoiari, ahots freskoagoak sartzeko. Oro har, talde batua lortu nahi dut, diziplinatua eta motibatua.

■ **Errepertorioa aipatu duzu lehen. Zuk musika garaikidea landu izan duzu. Orfeoiaren errepertorioan halako obrak sartzeko asmoa al duzu?**

Oraingo ezinezkoa da, hainbat konpromezu garrantzitsu baititu Orfeoiak. Baina badut lan berriak egiteko asmoa. Gertatzen da halako gauzekin kontuz ibili behar dela. Batetik, musika garaikidea oso interesgarria da, baina abeslariak konbentzituratu egon behar dute halakoak kantatzeko. Abeslariak gustatu behar zaie, eta baita publikoari ere. Beraz, ongi pentsatu behar dugu zer errepertorio nahi dugun. Eskaintza ona

s o s l a i a

Hamabost urte luze darama Koldo Pastor konpositore iruindarra musikaren munduan, ikasten. Gaztaroan rock talde bateko partaide izan ondoren, musika seriotasunez ikastea erabaki zuen. Iruñeko Kontserbatorioan aritu zen lehendabizi, baita geroago Donostian eta Zaragozan ere.

*

Iruñean Agustin Gonzalez Acilu izan zuen irakasle eta, aitortzen duenez, eragin handia izan zuen berarengan. Iruñeko Taldearen sortzailetzat ere jotzen du Pastorrak. Une honetan taldekideak banatuta badaude ere, otsailean euren lehen diskoa kaleratzeko asmoa dute.

*

Koldo Pastorrak, beraz, ez zaio lanik falta. Iruñeko Orfeoiko zuzendari ezezik, Burlatako Hilarion Eslava Musika Eskolako irakasle ere bada. Bere lan berriarekin hasi aurretik, Los Amigos del Arte-ko Paulino Otamendi taldeko zuzendaria ere bazen. Eginkizun hau, baina, bertan behera utzi behar izan du, orfeoiak duen denbora guztia kentzen diolako.

eta berezia prestatu behar dugu jendearengana heltzeko. Eta eskaintza on bat izateko obra modernoak berpiztu behar dira. Baina halako aldaketak poliki egin behar dira, bestela gaizki ateratzeko arriskua baitago. Baina, bestalde, ni konpositorea naiz eta ezin dut ahaztu nire garaierekin dudak konpromezua.

■ **Zaila al da halako lanak orfeoiaren jarduerarekin uztartzea?**

Askotan erraten da konpositoreek egiten dutena zaila dela gero muntatzeko. Agustin Gonzalez Aciluren kasua hor dago. Irakasle izan nuen Iruñeko Kontserbatorioan, eta berak egindako hainbat lan estreinatuta gabe daude. Musikaren alorrean urtetan lan egin ondoren, ikasi dut zein kontserbadoreak diren entzuleak. Agustin Gonzalez Aciluren obrak, dena den, oso zailak direnez, Orfeoiak ezingo luke halakorik egin. x

«Musika garaikidea oso interesgarria da, baina abeslariak konbentzituratu egon behar dute orfeoiak halako obra bati ekin aurretik»

P A N E
LUCRÁNDO

ZALDI ERDA

LIRIKAZ HONATAGO
45.

GAUR:
BIRIBIL BELTZA

R.L. Stevenson

Koroa baten txanponaren tamainako biribila zen, gutxi gora behera. Alde batean ez zegoen deus ere, azken orria zelako;

Beste aldeak Apokalipsiaren Liburuaren berset bat edo biltzen zituen. Hartara zeharo hunkitu ninduten nitzok irakurri ahal izan nituen:

«Kanpoan zakurrak eta hiltzaileak daude»